

Tailerraren ondorioak:

Ikastaroa planteatzeko orduan, burutan ikastaroaren hartzailleak eskoletako irakasleak izango zirela izan nuen, ahotsaren inguruan zer baliogarri izan ahal zaien izan zen prestakuntzaren ardatza, batez ere kantuari eta adierazkortasunari dagokionez, baita horrek ahots gaitasunetan duen eraginean ere.

Beste baldintza garrantzitsu bat saioa praktikoa izatea zen, eguneko beste ikastaroa geldirik egotekoa zela suposatuta, gauzak “gorputzez” bizitzeak duen garrantzia eta poztasuna sentitu nahi nuen ikasleekin.

Ariketak:

1. Musika dantzagarri bat jarrita, gorputzeko artikulazioak mugituz hasi ginen. Ahots lanerako gorputza aske izateak duen garrantzia sentitzea zen honen helburua, baita lotsak kentzea ere. Gorputz barrua mugituta eta arima alaituta, egoki egin daiteke edozein lan.
2. Ahots masajea: Aurrena hiruak, gero partaideak bi talde handitan banatuta (11 pertsona taldeko), pertsona bat erdian jartzen da eta besteek ahotsaren bidez “masajea” ematen diote gorputzean zehar. Honen helburua “soinuaren goxotasuna” frogatzea zen, bestalde ohartzea garrantzitsua dela soinuari jartzen diogun intentzioa, nola intentzioaren arabera sentsazioa ere aldatzen zen (bi talde handietan “akelarrea” eta “transzendentzia” sentitu genituen.
3. Ahots kalitate ezberdinak: umea, oihua, zorionak zuri nazkatuta.... Arima jarrera ezberdinetatik, eztarri jarrera ezberdinak jarri genituen eta ondorioz soinu kalitate ezberdinak atera genituen. Ahotsa gure izaeraren eta gure nahiaren arabera sortuta genuela ikusi genuen.
4. Joku erritmikoa: 1, 2, 3, 4, 5 6 7, real! erritmoa egin genuen ahoarekin, ta, ta, tata ta..., aurrena normal, behin eta berriz errepikatuz, gero denbora bateko isiluneaz bukatu eta hasi tartean. Gero bi talde egin genituen eta talde bakoitzak bat egiten zuen. Bi erritmoak nahasten doaz eta azkenean berriz bueltan elkartzen dira, bata bestearen gainean egiten dira. Jolas honen helburua erritmoak ongi eta sendo finkatzearen garrantzia ikustea zen, musikalitatean erritmoak duen garrantzia ikustea.
5. Oinarri erritmikoak pixka bat begiratu genituen, “esalditxo erritmikoak” ikasteko, modu egokia izenak jartzea dela ikusi genuen.
6. Taldearen tonuaz aritu ginen. Taldearen beheko notak eta goikoak topatzea garrantzitsua zela ikusi genuen denok batera kantatzeko orduan. Emakumeak eta gizonak elkarrekin daudenean, gizonak “pixka bat baxu”

eta emakumeak “pixka bat altu” kantatzea dela oreka normalena ikusi genuen.

7. Gizonak eta emakumeak banatuta, *Amma* jolas erritmiko melodikoa egin genuen, afrikarrak ginela sinetsiz. Erritmoaren zehaztasuna, ahotsaren egokitasuna eta egiten genuenean sinesmena praktikatu genuen, sekulako gozamina izan zen.
8. Azken txanpan, Dindaiak sortutako “Xamarikoren ipuin zorroa” materialetik, “Mattin eta sorginak Bermeon” kantua entzun genuen eta ikasten hasi ginen, bukatu behar izan genuen baina.

Oso gustura sentitu nintzen saioa ematerakoan. Jendea hasierako momentutik sartu zen arikeretara eta oso giro atsegina egon zen. Hasieran ikastaroa emateak errespetua, ia beldurra ematen zidan arren, prestatzeak buru hauste bat edo beste eman didan arren, oso pozik nago egin izanaz.

Mila esker hau posible egin duzuen guztioi eta aurrera!

Oskar Estanga Ezkurdia
Lekunberrin, 2013-07-09